Hezkidetzako eskola ezartzeko beharrezkoak diren oinarrizko elementuak

Hezkuntza-sistema bera ahalduntzea.

Sistema horrek gizarte-arazoei irtenbideak eskaintzeko gaitasuna behar du izan, ikasleak alor akademikoan ez ezik beste alorretan ere prestatu behar ditu, maila pertsonal eta herritarrean esaterako, eta hala izango da hezkuntza-sistema gizarte-eraldaketarako sistema ahaldundua, gaitua. Behar dugun eskolak ezin du se xista, klasista, arrazista, ezta homofoboa izan, ezin ditu maiz gizartean bizi ditugun egoerak errepikatu; aldiz, gizartean ditugun desparekotasunen inguruko ikuspegi kritikoa sortzen lagundu behar du, horiek desagertzen aurrera egiteko.

Autokritica

ahaldundutako eskolak ez dio beste inori erantzukizunik eskatuko, bere erantzukizuna gain hartuko du, autokritika egin eta gatazka horretan zein funtzio duen aztertuko du, gai horri ekiteko.

ahalduntzeaz eta autokritikaz gain, beharrezkoa da…

Es Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta hezkidetza sustatu, koordinatu eta jarraipena egiteko **egitura egonkorrak** sortzea: beharrezkoa da hezkuntza-administrazioak eta hezkuntza-sistemak egitura egonkorrak edukitzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta hezkidetzarako politikak sustatu, koordinatu eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Hala, plan honetan jasotako neurriak ezartzen direla bermatuko da.

Familiek eskolan esku hartzea. Hezkidetzako eskola familiei irekia izan behar da, baita eskola kokatzen den ingurunera kokatuta egon ere. Garrantzitsua da familiek hezkidetza beren seme-alaben prestakuntzarako alderdi garrantzitsutzat hartzea, eta hori beren etxeetan praktikan jartzen saiatzea.

Ikasgelan **hezkidetza-materialak** txertatzea. Testuliburuak, baliabide didaktikoak, ikus-entzunezko materialak, irakurgaiak, ipuinak edota jostailuak ezin dira sexistak, arrazistak, homofoboak edota klasistak izan; materialek berdintasunean eta berdintasunerako hezi behar dute.

Hezkidetzan prestatutako **irakasleak**. Honako hau funtsezko elementuetako bat da hezkidetzako eskola abian jartzeko. Beharrezkoa da irakasleek prestakuntza jasotzea; prestakuntza etengabea ez ezik, hasierako prestakuntza ere bai, berdintasunean eta berdintasuneranzko hezkuntza zeharka txertatu duena. Irakasleek desparekotasunekiko sentiberatasuna izan behar dute, horiek nola sortu eta errepikatzen diren kontzientzia hartu behar dute. Halako irakasleek abian jartzeko tresna gehiago izango dituzte, halako prestakuntza jaso ez duten irakasleek baino.

Ikastetxeetara egokitutako **Hezkidetza Plana**. Dokumentu horrek, egoeraren behar bezalako diagnostikoa abiapuntu hartuta, ikastetxe bakoitzak berdintasunaren alorrean lortu nahi dituen helburu nagusiak bilduko lituzke, horiek lortzeko ekintza zehatzak egikaritu eta, ondoren, ebaluatu ahal izateko. Ez da, inondik inora, hezkidetza jarduera jakin batzuetara eta efemerideak ospatzera mugatzea; berdintasuna ikastetxe osoan hedatzea da helburua.